

EBETE HIZKUNTZA-ZERBITZUEN FORMAZIO ETA AHOLOKULARITZA ESKAINTZA IKASTETXEENTZAT

HIZKUNTZA TRATAERA INTEGRALA eta HIZKUNTZA PLANGINTZAK

- Hizkuntza trataera integrala modu argi eta praktikoa garatzeko ikastaroa
 - Hizkuntza plangintza osatzeko proposamenak eta aholkularitza
- *Irale bidez egiteko aukera ikastetxean bertan

Euskararen ERABILERA eta AHOZKOTASUNA

- Euskararen erabilera eta ahozkotasuna: oinarriak, estrategiak eta tresnak. Ikastaroak, saio puntualak eta aholkularitza. Hezkuntza etapa denak. Praktikoak eta testuingurura egokitua
- *Irale bidez egiteko aukera ikastetxean bertan

EUSKARALDIA eta AHOBIZI dinamikak

- Ikastetxeetan Euskaraldia baliatzeko edota ahobizi dinamikak abian jartzeko oinarriak, proposamenak eta laguntza. Irakasleak, irakasleak, familiak edota eskolako langileak

Euskaraldia aukera bikaina da ikastetxeetan euskararen erabilera eta euskararekiko jarrera lantzeko

Gu bai HEZITZAILE BERRITSUAK: JANTOKIKO HEZITZAILEENTZAT

- Jantokiko hezitzaileek euskararen erabilera sustatzeko formazioa: oinarri, estrategia eta tresnak

Ikastaro labor eta proposamen zehatzak. *Fundae* (Fundación Tripartita zena) bidez egiteko aukera

Euskara ERREFORTZU PROGRAMAK

- Gaitasun baxua duten ikasleei begirako eskola orduz kanpoko jarduera. Hizkuntza gaitasunen lanketa, ikuspegi komunikatiboa eta aisialdiko jardueren ezaugarriak uztartuta.

Lehen eta bigarren hezkuntza

Gu bai GURASO BERRITSUAK: irakasleak eta famiak norabide berean

- Gurasoentzat hitzaldi eta tailerrak
 - Guraso elkarreentzat aholkularitza
 - Irakasleentzat formazio eta aholkularitza
- Ezagutu eta erabili www.gurasoberritsuak.eus guneko baliabideak

Ikastaroak	Oinarrizkoa
	Garapena
Saio puntualak	Aurkezpena
	Jarraipen saio puntuala
Aholkularitza	Ikastetxe bakoitzaren nahietara, aukeretara eta beharretara egokitua

Euskararen erabilera eta ahozkotasuna

Erabileraren ontzia bete

Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako irakasleentzat baliagarria.

Saio puntualak edo ikastaroak izan daitezke: estrategiak garatzeko ikastaroak, aurkezpen saioak edota jarraipen saio puntualak.

Landutakoa aurrera eramateko aholkularitza ere eskaintzen zaie horrela nahi duten ikastetxeei.

Irale bidez ikastetxean bertan egiteko aukera ere badago.

Helburuak

- Irakasleei estrategia eta tresna zehatzak proposatzea ikasleen euskararen erabileran eta ahozko gaitasunean eragiteko.
- Proposatzen diren estrategia eta tresna horiek frogatzea, eta aukera ikusten den kasuetan, programazioan txertatzea.

Eduki nagusiak

- Erabileran eragiteko oinarrizko estrategiak
- Ikasgelara begirako estrategiak eta tresnak
- Motibaziora begirako estrategiak eta tresnak
- Ikasgelaz kanporako estrategiak eta tresnak
- Ikastetxeko plangintzan txertatzeko proposamenak

Eduki hauen inguruko informazio zehatza, adibideak eta tresnen azalpena ondoko gune honetan aurkitu daitezke: www.ebete.eus/hezitzaile-berritsuak.

Erabileran eragiteko oinarrizko estrategiak

- Abiapuntuko oinarriak aurkeztea izaten da lehen urratsa: eskolaren mugak ikustea eta euskararen erabilera sustatzea eta ahozkoasuna lantzea irakasleen ardura dela ikustea.
- Helburuak zehaztea: hortik abiatuz erabilerari dagozkion helburuak adosten dira.
- Oinarrizko prozedura aurkeztea: zehaztutako helburuei begira irakasleek hartu beharreko jarrera adosten da. Hau da: ikasleekin harremanean nola jokatu behar duten hizkuntzen erabilerari dagokionez.
- Oinarrizko prozedura aurrera eramateko baliabideak: adostutakoa praktikara eramateko tresnak lantzen dira eta neurgailuak zehazten dira.

Ikasgelara begirako estrategiak eta tresnak

- Irakasleak taldean duen lekua hartzen da abiapuntu moduan: aurretik zehaztutako helburuen arabera, ahozkoasuna eta erabilera lantzerakoan irakasleak saioetan zehar zein jarrera hartu ditzakeen lantzen da.
- Jarduerak egokitzea: ahozkoasuna eta erabilera lantzerakoan jardueren ezaugarriak egokitzeak asko laguntzen du. Beraien artean hizkuntza erabiltzea ezinbestekoa izatea lortu behar da, eta egoera hori irakasleak hartu behar duen jarrerarekin lotu. Hainbat adibide ikusten dira saioetan eta eskolan erabiltzen den metodologiara ere egokitzen da.
- Hizkuntza-jolasak eta hizkuntza-errutinak dituzten dinamikak tresna lagungarriak dira. Ahozkoa lantzeko baliagarriak eta erabilera indartzeko lagungarriak. Hainbat adibide ikusten dira eta jarduera berriak ere lantzen dira.

Motibaziora begirako estrategiak eta tresnak

- Haur eta nerabeen euskararekiko jarrerak eta jokabideak ulertzea izaten da motibazioak lantzeko abiapuntua Horretarako zenbait oinarri hartzen dira kontuan eta bereziki Soziolinguistika klusterraren ikerketa bat: *Erabileran eragiten duten faktoreak (2011)*.
- Motibazioa lantzeko jarduerak sortzea: faktoreen azterketatik abiatuz, ikasleekin gauzatu daitezkeen hainbat jarduera aurkezten dira eta erabilgarritasuna baloratzen da. Jarduera batzuk hausnarketa oinarri dutenak izaten dira eta beste batzuk izaera praktikoa dutenak.
- Aurrez egiten diren jardueretan hobekuntzak txertatzea: lehendik euskararen edo euskararekiko jarreraren inguruan egiten diren jarduera berezien azterketa ere egiten da, eta erabileran eragiten duten faktoreen ikuspegia txertatzeko proposamenak egiten dira.

Ikasgelaz kanporako estrategiak eta tresnak

- Patio ordurako jarduerak: ikasleek patio garaian euskara gehiago erabil dezaten jarduerak antolatzeke aukera aztertzen da, eta horiek egitea erabakitzen den kasuetan, hainbat tresna eta baliabide lantzen dira.
- Ahobizi dinamikak: ikasleek euskara gehiago erabil dezaten ahalegina egiteko jarduerak aurkezten dira, horiek aurrera eramateko baldintzak aztertzen dira, eta aurrera egin nahi bada, jarduerak prestatzen dira, hasierako urratsetatik baloraziora.

Ikastetxeko plangintzan txertatzeko proposamenak

- Aukera guztiak aurkeztu ondoren, lehentasunak jartzen dira, eta horren arabera programazioan nola txertatu aztertzen da.
- Tresnak lantzea eta jarraipena egiteko tresnak prestatzea: aukeratutako estrategiak eta tresnak lantzen dira praktikara eraman eta baloratzeko.

Hizkuntza trataera integrala eta Hizkuntza proiektuak

Euskara eta ahozkoa erdigunean jarrita, hizkuntzen trataera lantzen

Formazio saioak edota aholkularitza.

Aholkularitzari dagokionez, Hizkuntza Proiektuak garatzera bideratua.

Formazio saioei dagokionez, Hizkuntza trataera integrala eta horren barruan Hizkuntza trataera integratua lantzerantz begirakoak. Saio puntualak edo ikastaroak izan daitezke.

Lehen Hezkuntzakoentzat baliagarria. Bigarren Hezkuntzakoentzat dagokionez, kasuan kasu aztertu beharko litzateke.

Irale bidez ikastetxean bertan egiteko aukera ere badago.

Helburuak

- Ikastetxeetan Hizkuntza Trataera Integralaren gaia garatzeko irakasleei formazioa eskaintzea eta oinarriak jartzen laguntzea.
- Hizkuntza Trataera Integralaren barruan, Hizkuntza Trataera Integratua ere txertatzea: hizkuntzen arteko transferentziak eta arloekin loturak egiteko aukerak eta moduak aurkeztea.
- Hori guztia ikastetxeko Hizkuntza Proiektuaren barruan txertatzen laguntzeko aholkularitza eskaintzea, baita beharrezkoa ikusten duten ikastetxeen kasuan, Hizkuntza Proiektua osatzen laguntzea.

Ikastaroari dagokionez, ikastetxeetan Hizkuntza Trataera Integralari begira urratsak ematen laguntzera begirako edukiak lantzen dira.

- **Oinarriak:** Heziberri, Hizkuntzen Europar Markoa eta irteera profilak hartzen dira abiapuntuko oinarri moduan. Hizkuntza Trataera Integralaren norabidea ulertzeko eta irakasleen ardura eta zeregina zein den zehazteko beharrezkoak dira.
- **Ikuspegi komunikatiboaren lanketa:** Hizkuntza Trataera Integrala garatzeko ikuspegi komunikatibotik lan egiteko oinarriak eta estrategiak lantzen dira. Ikuspegi horretatik ikus daiteke arloetan edo proiektuetan zer landu behar den eta hizkuntzari dagokionez zehazki zer landu behar den. Besteak beste, honakoak lantzen dira: arazo-egoerak, ekintza komunikatiboa, faktore dinamikoak, testu eredugarriak, lanketa egiteko tresnak, produkzioak (lehenengoa, bigarrena eta amaierakoa) eta errubrikak.
- **Landutakoa praktikara eramatea:** oinarri batzuk lantzen dira baina helburua hainbat arlo edo proiektutan praktikara eramatea da. Hori egiterakoan ikusten dira aukerak, alde positiboak, zailtasunak eta garatu beharrekoak.
- **Hizkuntza Trataera Integratuaren lanketa:** testu-generoen mapa lantzen da (hori egina ez dagoen kasuetan) eta hortik bi bide garatzeko urratsak ematen dira. Batetik, ikasmaila bakoitzean landuko diren testu-generoak arlo eta proiektuekin lotzea. Bestetik, hizkuntzen arteko transferentziak aztertzea eta mintegien artean koordinatzea.

Lanketa egiterakoan eskolan lantzen diren hizkuntza guztiak eta arlo guztiak hartzen dira kontuan, baina euskara eta ahozotasuna erdigunean jarritz. Gaur egungo testuinguruan eta haur/gazte euskaldun eleanitzak izateko bidean, beharrezkoa ikusten da hori ardatz hartzea.

Bestalde, proposamenak eta garapena ikastetxeen lan egiteko moduetara eta metodologietara egokitzeko ahalegina egiten da. Gainera, horrela nahi duten ikastetxeen kasuetan, Berritzeguneeekin koordinatuta lan egiteko erraztasunak ematen dira.

Hizkuntza proiekturi dagokionez, ikastetxeei aholkularitza eskaintzen zaie horrela nahi izan ezker. Hizkuntza proiektuak jaso beharreko atalak aztertzen dira, horiek garatzeko aholkuak eskaintzen dira eta plangintzaren barruko atal ezberdinak garatzeko baliabideak eta tresnak ere eskaintzen dira.

Euskaraldia eta Ahobizi dinamikak

Ikastetxeetan Euskaraldia eta Ahobizi dinamikak baliatzen

Formazio saioak edota aholkularitza.

Ikasleei, familiei, irakasleei edota eskolako beste langileei begirako proposamenak eta horiek aurrera eramateko laguntza.

Ikastetxearen testuingurua eta ezaugarriak kontuan hartuta.

Euskaraldiarekin lotuta, edota Euskaralditik kanpo garatu daitezkeen Ahobizi dinamikak sortzera begira.

Helburuak

Ikastetxeetan euskararen erabilera eta euskararekiko jarrerak indartzeko Euskaraldia edota Ahobizi moduko dinamikak baliatzea.

Dinamika horien bidez euskararen erabilera indartzea gurasoen artean, irakasleen artean, ikasleen artean eta ikastetxeko beste langileen artean.

Erabilera indartzeaz gain, euskararekiko jarrerak eta hizkuntzarekin harremana indartzeko lagungarri izatea.

Ezaugarriak eta eduki nagusiak

Formazio saioei dagokionez:

- Irakasleentzat formazio saioak. Saio puntualak edota bi edo hiru saiotako formazioak.
- Ikasleek euskararekin duten harremana eta hizkuntza-sozializazioa abiapuntu hartuta. Horretarako, *Erabileran eragiten duten faktoreak* (Soziolinguistika klusterra 2011) hartuko da lan tresna moduan.
- Hortik abiatuz, ikastetxearen ezaugarrietara egokitutako helburuak zehaztea, eta helburu horien arabera dinamika garatzea.
- Kontuan hartuko da Euskaraldia 16 urtetik gorakoentzat dela, baina hori horrela izanda ere gazteagoentzat dinamika eta jardura osagarri oso interesgarri eta baliagarriak sor daitezke.

Aholkularitzari dagokionez:

- Ikastetxeentzat eta guraso elkarteentzat aholkularitza. Euskaraldia gurasoekin, irakasleekin edota eskolako langileekin lantzeraz begira. Ikastetxearen ezaugarrietara eta aukeretara egokitua. Euskaraldian parte hartzea indartzera begirako ekimenak, edota Euskaraldia baliatuz eskolako partaideen jarrerak eta sentsibilizazioa lantzeraz begirako jarduerak.
- Horretaz gain, Euskaralditik kanpo gurasoekin, ikasleekin eta eskolako langileekin Ahobizi dinamika sortzeko eta garatzeko oinarriak proposamenak eta laguntza.

Atal honetan lagungarri dira Lasarte-Orian 2018ko Euskaraldian Oriarte institutuan egin zen Nerabek Euskaraldian ikerketa-ekintzan ateratako ondorioak, baita 2018ko Euskaraldira begira Ebete landu zituen hainbat proposamen ere <http://www.ebete.eus/2018/10/20/ikastetxeak-euskaraldian-lehen-hezkuntzako-ikasleei-begirako-proposamenak> eta <http://www.ebete.eus/wp-content/uploads/2018/10/ikastetxeak-Euskaraldian-DBHrako-proposamenak.pdf> Horretaz gain, gurasoentzat egokitutako Ahobizi dinamika ereduak edota Gazteen Euskara Batzordeek dinamizatzeko Ahobizi dinamika ereduak ere erabiliko dira.

Gu bai Guraso Berritsuak

Irakasleak eta familiak norabide berean

Formazio saioak edota aholkularitza.

Irakasleei eta gurasoei begirakoa.

Irakasleen kasuan, guraso bileretan eman daitezkeen mezuei begirako formazioa.

Gurasoen kasuan, hitzaldi eta lantegiak, eta Gurasoen Euskara Batzordeentzat aholkularitza.

Helburuak

- Gurasoak ikastetxearen norabide berean aritzea lortzea: bai hizkuntza-transmisioari dagokionez, baita haurren eta gazteen euskararekiko jarreretan eta jokabideetan eragiteari dagokionez ere.
- Horri begira, irakasleekin lantzea gurasoentzako mezu egokiak elebitasunari eta eleaniztasunari buruz, baita gai hauen inguruan zein kezka izaten dituzten eta horri begirako mezu egokiak zein diren ere.
- Gurasoei mezu egokiak eta tresna praktikoak eskaintzera begira, hitzaldi eta lantegiak egitea.
- Seme-alaben euskararen erabilerarekin arduratuta dauden gurasoen kasuan, modu antolatu batean eragile izan daitezen oinarriak, formazioa eta aholkularitza eskaintzea.

Irakasleen formazioari dagokionez:

- Gurasoei begirako mezuak aztertzea eta adostea. Besteak beste: eleaniztasunari buruz eta euskaraz ikasteari buruzkoak, euskararen erabilerari buruzkoak eta gurasoek gai hauen inguruan dituzten zalantzei buruzkoak (euskaraz ondo ez dakiten gurasoak, euskaraz jakin gabe eskolako lanekin nola lagundu eta abar).
- Mezu horiek emateko moduak lantzea eta plangintza bat egitea: zein ikasmaitan eta zein uneetan emango den aukeratzea.
- Mezuak emateko tresnak prestatzea. Oinarri moduan udalek eta ikastetxeek lehendik landuta dituzten tresnak erabiliko dira, eta arreta berezia jarriko zaio Ebete hizkuntza-zerbitzuetatik landutako www.gurasoberritsua.eus guneko bideoei eta esku-orriei.

Gurasoei begirako hitzaldi eta lantegiei dagokionez:

- Gurasoei mezu egokiak eskaintzera eta izan ditzaketen hainbat zalantza argitzera begirako hitzaldiak. Besteak beste: *Nola lagundu lagunartean euskara erabil dezaten?, ¿Cómo ayudarles con las tareas escolares? Edota Nola lagundu eleaniztasunera bidean?–¿Cómo ayudarles a ser plurilingües?*
- Gurasoek euskararekiko jarrera aktiboa izan dezaten tresna eta proposamen zehatzak aurkeztera begirako saio praktikoak: *Kuku, haurrekin hitz egiten hasteko, eta Opor garaietako kutxa magikoa*

Gurasoen Euskara Batzordeei dagokionez:

- Gurasoen Euskara Batzordeak sortzeko edota abian dauden batzordeei laguntzeko hitzaldi edo formazio saioak.
- Oinarri moduan *Erabileran eragiten duten faktoreak* hartzen dira (Soziolinguistika klusterra, 2011).
- Hortik abiatuz gurasoek beraien seme-alaben hizkuntza-ohituretan eta talde moduan ikastetxean eragin dezaten oinarriak, baliabideak eta tresnak aurkezten dira.
- Batzordeei jarraipena egiteko eta aholkularitza eskaintzeko aukera ematen da.

Euskara errefortzu programak

Gaitasuna garatzen ikuspegi komunikatiboa oinarri hartuz eta ludikotasuna zainduz

Programaren kudeaketa edo hezitzaileen formazioa eta jarraipena.

Euskara gaitasun baxua duten ikasleei begirako programak hobetzera edo horiek sortzera begirakoa.

Hizkuntza gaitasunen lanketa, aisialdiko jardueren ezaugarriak eta ikuspegi komunikatiboa uztartuta. Ikastetxeko arduradunekin eta irakasleekin koordinatua.

Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikasleei begirakoa. Ikasturteko programak eta uda garaikoak.

Helburuak

- Euskara gaitasun baxua duten ikasleei euskara errefortzu saio ludikoak eskaintzea, ahozkoitasuna eta hizkuntza-gaitasuna landuz. Hizkuntzen gaitasunen lanketa eta jardueren izaera ludikoa uztartzea horretarako tresna egokiak erabiliz.
- Hizkuntza-gaitasunaren lanketa ikastetxeko arduradunekin eta irakasleekin koordinatuta egitea : abiapuntua ezagututa eta hainbat urrats adostuta.
- Lanketa ikuspegi komunikatiboa oinarri hartuz egitea: ahozkoa erdigunean jarrita eta helburuak argi edukita.
- Euskararen erabilera gustuko ekintzekin, bizipen positiboekin eta erreferente ezberdinekin lotzea, horretarako espazio eta dinamika egokiak eskainiz.

Eduki nagusiak

Hizkuntza-gaitasunak garatzera begirako **tresnak aurkeztea, aukeratzea eta lantzea**:

- Hizkuntza jolasak: jolasak berak hizkuntza erabiltzea ezinbesteko duenean. Partaideentzat helburua jolasa bera bilakatzen da eta hizkuntzaren erabilera bigarren plano batera, inkontzienteago batera igarotzen da, jolasaren oinarri izanik ere. Adibidez: *Giza irudiak, Pareko, Irentsi...*
- Elkarrizketa itxiak: eginak dauden elkarrizketak dira, jolas bihurtuak baina behin eta berriro modu ludikoan erabiliz, entrenatzen dituztenak. Adibidez: *Ez dut nahi, Zer moduz?*, Hiru lerroan....
- Hizkuntza-errutinak: egunero behin eta berriro erabiltzen diren esamolde horien lanketa.

Ebeteko web orrian hainbat material kontsulta liteke: <http://www.ebete.eus/wp-content/uploads/2018/04/JARDUERAK-eta-HIZKUNTZA-JOLAS-PROPOSAMENAK.pdf>

Tresnak programazioa txertatzea. Ohiko eredu bat honakoa izan daiteke:

- Lehen zatia: zatirik formalena. Hainbat egitura, hiztegia eta beste lantzeko tartea.
- Bigarren zatia: ahozkoatasunaren lanketa hizkuntza jolasen eta elkarrizketa itxien bidez.
- Hirugarren zatia: zatirik irekiena edo ludikoena, saioko bi zatietan landutakoa egoera errealetan erabiltzera bideratua eta erabilera bizipen eta egoera gustukoekin lotzera bideratua.

Programa Ebetek kudeatzen duen kasuetan, aurre-lanketa, jarraipena eta balorazioa: ikastetxeekin bilerak, irakasleekin koordinazio bilerak, programazioren lanketa, hezitzaileen formazioa, programaren jarraipena eta balorazioa.

Programa ikastetxeak edo Guraso Elkarteak kudeatzen duen kasuetan, hezitzaileen formazioa, programazioa lantzen laguntzea, eta jarraipenerako aholkularitza.

Gu bai Hezitzaile Berritsuak

Jantokietako hezitzaileentzat formazioa saioak

Jantokietako begiraleentzat eta eskola orduz kanpoko jardueretako hezitzaile eta irakasleentzat formazioa.

Saio puntualak, edota ikastaroak eta landutakoaren jarraipena. Koordinatzaileekin lanketa berezia.

Jantokietako hezitzaileen kasuan, *Fundae* bidez egiteko aukera.

Helburuak

- Jantokietako eta eskola orduz kanpoko jardueretako begirale, hezitzaile eta irakasleei jarduera horietan euskararen erabilera sustatzearen garrantzia transmititzea.
- Euskararen erabileran eragiteko oinarriak, estrategiak eta tresna praktikoak eskaintzea, eta horiek praktikara eramaten laguntzea.
- Antolatzaile eta koordinatzaileei oinarrizko irizpideak eskaintzea, horiek transmititzen laguntzea eta landutakoaren jarraipena egiteko irizpideak eta tresnak eskaintzea.

Eduki nagusiak

- Oinarrizko saioak
- Proposamen zehatzak eta aholkuak
- Saio praktikoak
- Koordinatzaileekin lanketa berezia
- Jarraipena ematea

Oinarrizko saioak: abiapuntuko saioak dira eta hezitzaileei oinarrizko irizpideak eta estrategiak eskaintzea bilatzen da. Zergatik sustatu euskararen erabilera jantokietan eta eskola orduz kanpoko jardueretan? Zer egin? Zer ez egin?

Proposamen zehatzak eta aholkuak: oinarrizko saioaren garapena da eta hainbat proposamen eta aholku eskaintzen dira. Zer egin haur batek ez badu euskaraz egin nahi? Nola jokatu hezitzaileak berak euskaraz aritzeko mugak baditu? Zein jarduera dira egokiak erabilera sustatzeko? Nola txertatu hizkuntza-jolasak gure jardueretan?, eta abar. Jantokietako begiraleen kasuan, talde osoa elkarrekin aritzea egokia da. Eskola orduz kanpoko jardueren kasuan, jardueren ezaugarrien arabera taldekatzea egiteak merezi du horretarako aukera ikusten denean.

Saio praktikoak: jardueren ezaugarrietara erabat egokitutako saioak. Bideoak erabiliko dira, simulazioak egingo dira, adibide errealak aurkeztuko dira... Ahalik eta praktikoena izatera begira, jarduera egiten den lekuan bertan egin daitezke saioak eta, noski, jardueraren ezaugarriak eta parte hartzaileen adina kontuan izango dira. Adibidez: jantokietako patioa, dantza, futbola, saskibaloia, ludoteka...

Koordinatzaileekin lanketa berezia: ikastaroan landutakoari koordinatzaileak jarraipena ematera begira lanketa berezia egitea. Jarraipen hori egiteko tresnak ere eskaintzen zaizkie.

Jarraipena ematea: Ebetetik formazio saioan landutakoaren jarraipena egiteko aukera ere ematen da. Galdetegi bidez informazioa jaso eta proposamen berriak egin, baita jarraipeneko formazio saioak eskaini ere.

Arlo honen inguruan Ebetetik hainbat gida eta euskarri landu ditugu: jantokietako begiraleentzat oinarrien eta estrategien dokumentua, eskola orduz kanpoko jardueretako hezitzaileentzat gidak, Mingainak dantzan udalekuetako argitalpenak, eta ludoteka eta gaztelekuetako hezitzaileei begirako gidak.